

IGERIKETA ▶ MINUSBALIATUEN MUNDUKO TXAPELKETA

Irabazteko gaitasuna

Richard Oribe eta Arkaitz Garcia Donostiako igerilariak abenduaren 2tik 8ra bitartean jokatu den Durbaneko Minusbaliatuen Munduko Txapelketan parte hartuko dute



Richard Oribe eta Arkaitz Garcia Anoretako kiroldegian entrenatzen dute. IÑAKI ESNAOLA

IÑAKI ESNAOLA

Egun bat besterik ez da falta Richard Oribe eta Arkaitz Garcia Hegoafrikako Durban hirira joateko. Bihar 15:50ak aldera hartuko dute bertara eramango dituen hegazkina. Durbanen Donostiako bi igerilariak Munduko Minusbaliatuen Igeriketa Txapelketan parte hartuko dute. Dena dela, astebeteko egonaldia egingo dute bertan lehia-tzen hasi aurretik. Egun horiek eroso jarri eta azken entrenamenduak egiteko aprobetxatuko dituzte. Durbaneko Munduko Txapelketa abenduaren 2tik 8ra bitartean jokatu dute.

Minusbalia zerebrala duten kirolarien artean Antiguako Richard Oribe igerilaria aipatzea ezinbestekoa da. 18 urte zitue-nean erabaki zuen Oribe zale-tasuna lehia bihurtzea. 1992an Bartzelonako Paraolimpiar Jokoetan parte hartu zuen eta emaitza oso onak lortu ez arren gogor entrenatzen jarraitzea erabaki zuen. Ereindakoaren lehen uzta garrantzitsua Atlantako Paraolimpiar Jokoetan lortu zuen. Urrezko hiru domina eta brontzezko bat. Ordu-tik hona, Antiguako kirolariak lorpenen zakua dezente bete du. Orain, 32 urterekin, aurrera egiteko gogotsu jarraitzen du eta jomugan ditu Durbaneko

Munduko Txapelketa eta Pekinen 2008an jokatu diren Paraolimpiar Jokoak.

Oribe, ordea, ez da Hegoafrikako hirira joango den eta minusbalia zerebrala duen Donostiako igerilari bakarra izango. Berarekin batera Arkaitz Garcia gaztea abiatuko da. Amara Berriko igerilariak bere zazpigarren txapelketan parte hartuko du gutxieneko markak esfortzu handiz gainditu ondoren. Ondoren, bere hirugarren Paraolimpiar Jokoetan sailkatzen ahaleginduko da. Bistan

denez, bi igerilariak gogo, eskarmentu eta gaitasunik ez zaie falta.

Honez gain, argitu beharreko kontua da Minusbaliatuen Nazioarteko Batzordeak egiten duen sailkapena. Aipatu bezala Oribe eta Garcia minusbalia zerebrala duten igerilariak dira. Multzo honetan Batzordeak 1 etik 10erako sailkapena egiten du. Gradu handienetik txikienera. Sailkapen honetan laugarren graduko minusbalia zerebrala dute Donostiako bi kirolariak. Honela, lehiatzeko

orduan beraien sailkapen bereko igerilariekin lehiatzen dira.

Entrenamendu serioak

Abuztuko azken astean hasi ziren Richard Oribe eta Arkaitz Garcia Durbaneko Txapelketa prestatzen. Anoretako kirolde-giko pisinetan makina bat metro egin dute lehiaketara sasoi-rik onenean iristeko. Javier de Aymerich Oriberen entrena-tzaileak inoiz baino indartsua-go ikusten du Antiguako igeri-laria. «Egin dizkiogun esfortzu proba eta osasun azterketen emaitzek diotenaren arabera bere markak hobetzeko mo-duan dago». Julia Perez entre-natzaileak ere gogotsu ikusten du Arkaitz Garcia. «Betidanik izan da langilea eta ez du amo-re ematen. Merezita gainditu ditu gutxieneko markak».

Entrenamenduen plangintzari dagokionez, bi igerilari-ek antzeko prestaketa egin dute. «Richard Oriberekin astelehe-netik larunbatera bost sesio egiten hasi ginen. Piszinan nahiz gimnasioan. Baina bederatziraino ere iritsi gara, goiz-tan hiru lan saio eginez», adie-razi digu Javier de Aymerich bere entrenatzaileak. Arkaitz Garcia ere prestaketa guttiz trinkoa egin du Julia Perez ent-renatzailearekin.

Helburu aldetik, Oribe eta Garcia asmo ezberdinak dituzte Durbaneko Munduko Txapelketan. Oribe bere Euro-pako bi markak hobetzen saia-tuko da. Hain zuzen ere, 50 eta 100 metro libreetakoak. Gar-cia, berriz, jokatu dituen bi probetan finalerako txartela lortzen saiatuko da. 50 metro-giko pisinetan makina bat me-tro egin dute lehiaketara. «Zorte-a lagun dominaren bat lortzen saiatuko naiz». Baina, ez da ba-tere erraza izango. Azken urte-etan lehiakide apartak agertu dira eta zaila izango da domi-nen lehian sartzea.

Azken batean, ordu gutxi fal-ta dira Oribe eta Garcia feno-menoak Durbanera abiatzeko. Zorte onena izan dezatela eta ea oroirarik ekartzen duten.

RICHARD ORIBE ▶

Adina. 32 urte.
Auzoa. Antigua.
Kluba. Konporta.
Lorpen nagusiak.
▶ 1996. Atlantako Paraolimpiar Jokoetan urrezko hiru domina eta brontzezko bat.
▶ 2000. Sydneyko Paraolimpiar Jokoetan urrezko lau domina eta munduko lau errekor berri.
▶ 2004. Atenaseko Paraolimpiar Jokoetan urrezko, zilarrezko eta brontzezko domina bana.
Durbaneko egitaraua.
▶ Abenduak 2: 50 metro libre.
▶ Abenduak 4: 200 metro libre eta 4 x 50 metro libre txandaka.
▶ Abenduak 7: 100 metro libre.

ARKAITZ GARCIA ▶

Adina. 23 urte.
Auzoa. Amara Berri.
Kluba. Dordoka.
Lorpen nagusiak.
▶ 2000. Sydneyko Paraolimpiar Jokoetan parte hartu zuen.
▶ 2002. Argentinako Mar de Plata hirian egin ziren Munduko Minusbaliatuen Txapelketan zilarrezko domina irabazi zuen, 4 x 50 estiloen txandakako proban.
▶ 2004. Atenaseko Paraolimpiar Jokoetan ere parte hartu zuen.
Durbaneko egitaraua.
▶ Abenduak 2: 50 metro libre.
▶ Abenduak 5: 50 metro bizkar estiloan.

ILAZKI EUSKATEGIA

Euskara irakasleen lan-burtsa osatzeko deialdia. Bidali curriculumak helbide honetara: ikasketaburua@ilazki.com